

## LUKASZ RONDUDA

*Love (Maitasuna)* proiektatu osteko azalpenetan Lukasz Rondudak aditzera eman zigunez, maitasuna boterearen aurkako borroka tresna bilakatu nahi zuten hirurogeiko hamarkadako mugimendu kontrakulturalek. "Maitasunaren eta emantzipazioaren arteko eragin loturak oso estuak ziren garai hartan, eta aurreko proiektioan ikusi duguna horren adibideetako bat da. Mugimendu kontrakulturalen aburuz, gizarte aldaketa gauza lorgarria dela frogatzen zuen maitasunak, eta, haien arabera, maitasunaren logika bizitzaren esparru guztietara eramatea zen egin beharrekoa", baieztatu zuen.



Lukasz Rondudak harremanetan jarri zituen, batetik, Cummings-en eta Lewandowska-ren narratibak agerian jartzen duen maitasunaren eta langileriaren arteko lotura eta, bestetik, Karl Marxek defendatzen zuen maitasunaren ikuskera. Maitasuna lehen lerroan zegoen Marxen proiektuan, alienazioari gailentzen zitzaion indarra zen harentzat, errealitatea eralda zezakeen indar bizia. Rondudaren iritziz, ikuspuntu horrek agerian jartzen du maitasunean oinarritzen dela Marxen emantzipazio proiektuaren norabide materialista. "Marx ez zen pertsonen bizitza bizi baldintzek baldintzatzen dutela esatera mugatu; aitzitik, mundua gizatiartzeko prozesua ireki behar zela aldarrikatzen zuen", baieztatu zuen. Aldaketa prozesua, gizabanakoak mundu materialarekin eta beste pertsonekin lantzen dituen gizarte harremanetan oinarritu behar da halaberrez, maitaleen arteko harremanen antzekoak diren filosofiaren eta langileriaren arteko harremanetan, Rondudaren arabera.

Denborak erakutsi du neurri batean bakarrik izan zuela arrakasta hirurogeiko hamarkadako saio hark. Izan ere, maitasuna gaur egun kontsumismoaren eta pop kulturaren aldarri bilakatu dela esango genuke, utopiari hegoak moztu zaizkiola, bai eremu publikoan bai pribatuan. "Gaur egungo gure egoera honetan, Marysia Lewandowskaren eta Neil Cummingsen proposamenak agerian jartzen du egiazko bilaka daitekeela 1968an ezinezko zela frogatu zen hori, sistema kapitalista eraldatuz gero. Irudietan agertzen den ikasgaiaren arabera, maitasunaren norabidea da hartu beharrekoa gizarte harremanak eta gizarte ordena aldatzekotan", Rondudaren iritziz.

-----

## MAHAI INGURUA

Ondoren, tailerraren koordinatzaile Carles Guerrak eta Leire Vergarak elkarrizketa bat izan zuten Neil Cummingsekin eta Marysia Lewandowskarekin, Lukasz Ronduda

ere beraiekin zela. Elkarrizketan, *enthusiasm* proiektuko alderdi batzuk aztertu zituzten. Esate baterako, zentsura nonahi zegoen erregimen batean pelikulak egiteko zailtasuna, zergatik egiten ziren soinurik gabeko filmak, eta emakumezko zuzendariak zergatik ziren hain gutxi.



Zentsurari dagokionez, "egin zitekeenaren eta egin ezin zenaren artean halako zubi zentzudun bat eraiki zuten zuzendariak" adierazi zuen Cumingsek. Film guztiak zentsuraren iragazkitik igoarazten zituzten, eta harrietako batzuk satira oso zuzenak izaten zituzten, hala ere. Erregimenaren aitzinean fikzio horiek sortzean, filmen egileek beste mota bateko borroka eta oposizio bideak aurkitu zituzten, eta testuinguru horretan oso garrantzitsua zen soinurik gabe filmak egitea. Zuzendariak, gizonezkoak gehienetan, bitartekoen eskostasuna abantaila bihurtu zuten: "soinurik gabeko film batean, irudia da narrazioaren gidari; gainera, horrelako filmak ulergarriak dira jende guztiarentzat, eta, esplizituki esan ezez ez denez esaten, anbiguotasunak lana zailtzen dio zentsurari", adierazi zuen Lewandowskak. Emakumezkoek egindako filmak zergatik diren hain gutxi galdetu zitzaizkion, Cumingsek eta Lewandowskak adierazi zuten fabriketan lan egiten zuten eta berentzat astirik bazuten gizonezkoak zirela zuzendari gehienak. Nahiz eta emakumezkoek parte hartzen zuen zine-klubetan, dekorazio lanak egiten zituzten gehienbat eta haien izenak ez ziren kredituetan agertzen. "Baina horrekin ez dugu ezer berririk esaten; gaur egun ere emakumezko gutxi ikusten da zuzendaritza lanetan", gogoratu zuen Lewandowskak